

# 2024. EKITALDIRAKO AURREKONTU PROPOSAMENA

## AURREKARIAK.

BERUALA, S.A. elkartearen aurrekontuak Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauan (BAO Abenduaren 15ekoa) oinarritzen dira.

Honen arabera, Toki Erakundeen urteko aurrekontua toki administrazioaren arauaren adierazpena da eta bertan haren organismo autonomoen eta **sozietate publikoen aurrekontuak sartzen dira (sozietate publikoak dira sozietatearen kapitalaren edo fondoaren %50 baino gehiagoko partaidetza dutenak).**

Aipatutako Foru Arauaren ATARIKO TITULUAN, bere 1. artikuluan **aplikazio-eremua** xedatzen da:

*Foru arau hau Bizkaiko Lurralde Historiko osoan aplikatuko zaie toki erakundeei, haien organismo autonomoei, enpresa-erakunde publikoei eta toki erakundeon menpeko sozietate publikoei.*

*Halaber, udalerriaz beherako eremuko erakundeei ere aplikatuko zaie, haien berezitasunak kontuan hartuta.*

*Aurrekontu- eta kontabilitate-araubideari dagokienez honako kasu honetan hartuko da sozietate bat toki erakunde baten sozietate publikotzat: toki erakundeak %50ekoa baino handiagoa den partaidetza badu sozietatearen kapitalean edo funtsean.*

Horrela, bere 3. artikuluan, Toki-erakundeen **aurrekontuaren definizioa eta integrazioa** xedatzen da:

*3. Honako hauek sartzen dira aurrekontu orokorretan; erakundearen beraren aurrekontuak, **haren enpresa-erakunde publikoenak, haren menpeko sozietate publikoenak** eta partzuergoenak, **betiere haien egintzak zuzenean edo zeharka lotuta badaude toki erakundeak erabakitzeko ahalmenarekin.** Aurrekontu orokorrekin batera, erakundeari atxikitako gainerako partzuergoen aurrekontuak aurkeztuko dira, informazio-ondorioetarako.*

## **AURREKONTUAREN EDUKIA.**

10/2003 Foru Arauak bere II. Kapituluaren aurrekontu orokorren edukia xedatzen du, eta Enpresa-erakunde publikoei dagokiona, 6. Artikuluaren 2. Puntuari adierazten da:

*2. Enpresa-erakunde publikoen, partzuergoen eta hala badagokio sozietate publikoen aurrekontuek barne hartu beharko dituzte ondorengo agiriak:*

- a) Aurreikusitako galeren eta irabazien kontua.*
- b) Aurreikusten duten balantzea.*
- c) Ondare garbian aurreikusten diren aldaketaren egoera.*
- d) Aurreikusitako egoeraren eta kontuen azalpen memoria, aurreko ekitaldiarekin alderatuta egon diren aldaketarekin batera, eta hura egiteko erabilitako irizpideak. Era berean, datozen ekitaldietan eragina izango duten konpromiso ekonomikoen berri eman beharko da.*
- e) Transferentzia arruntak eta diru-laguntza arruntak eta kapital-laguntzen eranskina; bertan aurreikusitako egoera eta kontuetan bildutako kontzeptu horien gastuak, aplikatu daitezkeen araubidea eta diru-laguntzak emateko prozedura zehaztu behar dira.*
- f) Zorpetzeari buruzko eranskina bat, erakundeak aurrekontu ekitaldiaren hasierarako eta amaierarako aurreikusitako finantza-zorren maila biltzen duena, aurreikusitako bariazioak eta interesen ordainketak zehaztuz.*
- g) Langileak biltzen dituen eranskina, lanpostuen banakako zerrendarekin, ordainsariak eta gastu sozialak bereiziz.*
- h) Ekitaldian zehar esleitu edo egin beharreko inbertsioak biltzen dituen eranskina, Lurzoruaren Ondare Publikoari dagozkionak eta bestelakoak bereiziz.*

## **GERTUTU ETA ONESTEKO ESKUMENA**

10/2003 Foru Arauaren 14. artikulua. 3. Enpresa-erakunde publikoek eta (horrelakorik badago) atxikitako partzuergoek eta sozietate publikoek 6. artikuluan ezarritako agiriak bidali behar dizkiote toki-erakundeko buruari.

Kontabilitateko egoera-orri horiek oinarri hartuta, toki-erakundeko buruak administrazio-aurrekontuaren egitura ekonomikoari dagozkionak prestatuko ditu, artikuluan mailan gutxienez.

BERUALAko zuzendariak, aipatutako proposamena 2023ko urriaren 13an bidalizio Presidenteari.

Toki-erakundeak, mendeko enpresa erakunde publikoen, partzuergoen eta sozietate publikoen aurrekontuak onartu aurretik, informazioa bidali behar du aurrekontuen proiektuan mendeko erakunde horiek finantzatzeko egingo duen ekarpenari buruz.

**Udalaren ekarpena 516.941,55 eurokoa izango da**

Horren arabera aurrekontuak moldatu egin dira eta 2022ko azaroaren 03an zuzendutakoa proposamena aurkeztu da.

Hau guztia kontuan hartua, BERUALA S.A. enpresaren Administrazio Kontseiluan aurkezten dira 2024. ekitaldirako aurrekontu proposamena, hurrengo agiri hauek osatuta:

- a) Aurreikusitako ustiapen kontua.**
- b) Aurreikusten den egoera-balantzea.**
- c) Ondare garbian aurreikusten diren aldaketen egoera.**
- d) Aurreikusitako egoeraren eta kontuen azalpen memoria, aurreko ekitaldiarekin alderatuta egon diren aldaketenarekin batera, eta hura egiteko erabilitako irizpideak. Era berean, datozen ekitaldietan eragina izango duten konpromiso ekonomikoen berri eman beharko da.**
- e) Transferentzia arrunten eta diru-laguntza arrunten eta kapital-laguntzen eranskina; bertan aurreikusitako egoera eta kontuetan bildutako kontzeptu horien gastuak, aplikatu daitekeen araubidea eta diru-laguntzak emateko prozedura zehaztu behar dira. (Hau Udalaren diru-laguntzen oinarri espezifikoak onartzen direnean aurkeztuko da)**
- f) Zorpetzeari buruzko eranskin bat, erakundeak aurrekontu ekitaldiaren hasierarako eta amaierarako aurreikusitako finantza-zorraren maila biltzen duena, aurreikusitako bariazioak eta interesen ordainketak zehaztuz.**
- g) Langileak biltzen dituen eranskina, lanpostuen banakako zerrendarekin, ordainsariak eta gastu sozialak bereiziz.**
- h) Ekitaldian zehar esleitu edo egin beharreko inbertsioak biltzen dituen eranskina, Lurzoruaren Ondare Publikoari dagozkionak eta bestelakoak bereiziz.**

## **Proposamena**

Goian aipatutako guztia kontuan izanda, eta oker edo hutsik ezean, honako hau proposatzen dut:

Txosten honen edukia jakinaraztea, dagozkion xedeetarako.

Bermeon, 2023ko azaroaren 17an

---

**Santi MURUA ETXEBERRIA**  
Zuzendaria

**Zigor URIONDO ARRUE**  
Kontseilari-Delegatua

**A.- 2024 EKITALDIRAKO AURREIKUSITAKO USTIAPEN KONTUA.**

<i>Deskribapena</i>	<b>2024 urteko aurreikuspena</b>
1. <i>Negozio-zifraren zenbateko garbia</i>	18.000,00 €
2. <i>Produktu bukatuen nahiz amaitze bidean dauden produktuen izakinen aldaketa</i>	
3. <i>Enpresak bere aktiborako egindako lanak</i>	0,00 €
4. <i>Hornikuntzak</i>	- 82.000,00 €
5. <i>Ustiapeneko beste sarrera batzuk</i>	516.941,55 €
6. <i>Pertsonal-gastuak</i>	- 367.430,18 €
7. <i>Ustiapeneko beste gastu batzuk</i>	
8. <i>Ibilgetuaren amortizazioa</i>	
9. <i>Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelako en egozpena</i>	
10. <i>Horniduren soberakinak</i>	
11. <i>Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitza</i>	
11a. <i>Emandako diru-laguntzak eta erakundeak egindako transferentziak</i>	0,00 €
<i>administrazio-izaerako tokiko sektore publikoari</i>	
<i>enpresa- edo fundazio-izaerako tokiko sektore publikoari</i>	
<i>beste batzuei</i>	
12. <i>Otros resultados/12. Beste emaitza batzuk</i>	
A) <i>USTIAPENENKO EMAITZA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+11a+12)</i>	85.511,37 €
13. <i>13. Finantza-sarrerak</i>	
14. <i>14. Finantza-gastuak</i>	- 28.966,44 €
15. <i>Arrazoizko balioaren aldaketa finantza-tresnetan</i>	
16. <i>Kanbio-ezberdintasunak</i>	
17.. <i>Finantza-tresnak besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitza</i>	
18.. <i>Beste finantza-sarrera eta -gastu batzuk</i>	
B) <i>FINANTZA-EMAITZA (13+14+15+16+17+18)</i>	- 28.966,44 €
D) <i>EKITALDIKO EMAITZA (C+19)</i>	56.544,93 €

Lortutako emaitza guztia, urtean zehar banketxeekin zorraren kitatzeko bideratzen da.

**B.- 2024ekitaldirako aurreikusten den egoera-balantzea.**

<i>Deskribapena</i>	<b>31/12/2024</b>
<b>A) AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>718.105,00 €</b>
<i>I. Ibilgetu ukiezina</i>	14.295,00 €
<i>II. Ibilgetu materiala</i>	88.150,00 €
<i>III.. Ondasun higiezineta inbertsioak.</i>	603.042,00 €
<i>IV. Taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan epe luzera egindako inbertsioak.</i>	
<i>V. Epe luzerako finantza-inbertsioak.</i>	12.618,00 €
<i>VI. Aktiboak geroratutako zergak direla-eta.</i>	
<i>VII. Merkataritzako zordun ez-korronteak</i>	
<b>B) AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>3.082.161,76 €</b>
<i>I. Izakinak</i>	3.013.970,91 €
<i>II. Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk</i>	25.000,00 €
<i>Bezeroak, salmentak eta zerbitzuen prestazioak direla-eta</i>	5.000,00 €
<i>Akziodunak (bazkideak) exijitutako ordainketak direla-eta</i>	
<i>Beste zordun batzuk</i>	20.000,00 €
<i>III. Taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan epe laburrera egindako inbertsioak</i>	
<i>IV. Epe laburrerako finantza-inbertsioak</i>	9.896,00 €
<i>V. Epe laburrerako periodifikatzeak</i>	21.412,00 €
<i>VI. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk</i>	11.882,85 €
<b>AKTIBOA GUZTIRA (A+B)</b>	<b>3.800.266,76 €</b>

Deskribapena	31/12/2024
<b>A) ONDARE GARBIA</b>	<b>1.462.235,14 €</b>
A-1) Funtz propioak	1.462.235,14 €
I. Kapitala	
1. Eskrituratutako kapitala	588.451,21 €
2. (Exijitu gabeko kapitala)	
II. Jaulkipen-prima	
III. Erreserbak	-2.831.275,50 €
IV. (Akzio propioak eta ondare-partaidetza propioak)	
V. Aurreko ekitaldietako emaitza	-2.830.384,50 €
VI. Bazkideen beste ekarpen batzuk	6.478.899,00 €
VII. Ekitaldiko emaitza	56.544,93 €
VIII. (Konturako dibidendua)	
A.2) Doikuntzak ondare garbian	
A.3) ) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0,00 €
<b>B) PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>815.538,69 €</b>
I. I. Epe luzerako hornidurak	
II. Epe luzerako zorrak	815.538,69 €
1. Zorrak kreditu-erakundeekin	815.538,69 €
2. Errentamendu finantzarioaren ondoriozko hartzekodunak	
3. Epe luzerako beste zor batzuk	- €
III. Epe luzerako zorrak taldeko enpresekin eta enpresa elkartuekin	
IV. Geroratutako zergen ondoriozko pasiboak	
V. Epe luzerako periodifikatzeak	
VI. Merkataritzako hartzekodun ez-korronteak	
VII. Ezaugarri bereziko epe luzerako zorra	
<b>C) PASIBO KORRONTEA</b>	<b>1.522.492,93 €</b>
I. Epe laburrerako hornidurak	
II. Epe laburrerako zorrak	56.544,93 €
1. Zorrak kreditu-erakundeekin	56.544,93 €
2. Errentamendu finantzarioaren ondoriozko hartzekodunak	
3. Epe luzerako beste zor batzuk	- €
III. Epe laburrerako zorrak taldeko enpresekin eta enpresa elkartuekin	1.146.963,00 €
IV. Merkataritzako hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk	318.985,00 €
1. Hornitzaileak	281.445,00 €
2. Beste hartzekodun batzuk.	37.540,00 €
V. Epe laburrerako periodifikatzeak	
VI. Ezaugarri bereziak dituen epe laburrerako zorra	
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)</b>	<b>3.800.266,76 €</b>



BERUALA, S.A. Bermeoko Urigintz Barriztatze Alkartea, Sociedad Anónima

**c) Ondare garbian aurreikusten diren aldaketen egoera:**

	1. Eskrituratutak o kapitala	II. Erreserba legala	III. Bolondreseko Erreserbak	V. Aurreko ekitaldietako emaitza	VI. Bazkideen beste ekarpen batzuk	VII. Ekitaldiko emaitza	A.3) ) Jasotako diru- laguntzak, dohaintzak eta legatuak	GUZTIRA
2022eko amaiera	588.451,21 €	90.142,00 €	-2.924.424,00 €	-2.857.443,00 €	6.478.899,00 €	30.065,00 €	0,00 €	1.405.690,21 €
2023ko aldaketak	0,00 €	3.006,50 €	0,00 €	27.058,50 €	0,00 €	-30.065,00 €	0,00 €	0,00 €
II. Aldaketa guztira	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
<b>B. SALDO AJUSTADO, INICIO DEL EJERCICIO 2024</b>	<b>588.451,21 €</b>	<b>93.148,50 €</b>	<b>-2.924.424,00 €</b>	<b>-2.830.384,50 €</b>	<b>6.478.899,00 €</b>	<b>0,00 €</b>	<b>0,00 €</b>	<b>1.405.690,21 €</b>
I. Irabazi eta galeren emaitza	- €	0,00 €	- €	0,00 €	- €	56.544,93 €	0,00 €	56.544,93 €
II. Ondare garbiko gastuak eta sarrerak	- €		- €	- €	- €	- €	- €	0,00 €
III. Bazkidearekin harremanak	- €		- €	- €	- €	- €	- €	0,00 €
1. Kapital gehikuntzak	- €		- €	- €	- €	- €	- €	0,00 €
2. (-) Kapital gutxiketak	- €		- €	- €	- €	- €	- €	0,00 €
3. Bazkidearekin bestelako harremanak	- €		- €	- €	- €	- €	- €	0,00 €
IV. Beste aldaketak	- €		- €	- €	- €	- €	- €	0,00 €
<b>C. 2024ko aurreikusitako emaitza</b>	<b>588.451,21 €</b>	<b>93.148,50 €</b>	<b>-2.924.424,00 €</b>	<b>-2.830.384,50 €</b>	<b>6.478.899,00 €</b>	<b>56.544,93 €</b>	<b>0,00 €</b>	<b>1.462.235,14 €</b>

## **D.- AURREIKUSITAKO EGOERAREN ETA KONTUEN AZALPEN MEMORIA**

Aurrekontuaren sarrerak eta gastuak 10/2003 FORU ARAUAren 7. eta 8. Artikuluetan xedatutakoaren arabera kalkulatu dira, hurrengo irizpideetan oinarrituz:

### **Sarrerak:**

10/2003 FORU ARAUAren 7. artikuluan xedatzen dan moduan:

*Sarreraren orrietako zenbatekoak zenbatespenak izango dira, aurrekontua egitean zehatz mehats ezagutzen direnak izan ezik, horiek berariaz zehatz agerraraziko baitira.*

*Enpresa-erakunde publikoek eta sozietate publikoek hartzen dituzten kapital-transferentziak eta diru-laguntzak beren kapital eragiketarako finantzatzeko baliabide izango dira erakunde eta sozietate horientzat, eta haien Aurreikusitako Balantzean sartuko dira. Aurrekoa gorabehera, jasotako funtsak beste pertsona edo erakunde bati diru-laguntza eta kapital-transferentziak emateko jasotzen direnean, funtsok sarrera gisa sartuko dira Galera-irabazien Kontuan.*

**1.- Udalaren ekarpena, 516.941,55 eurokoa** izatea aurreikusten da, eta finantziario gabeko gastuei eta aurreikusitako amortizazioari aurre egiteko erabiliko den kopurua da.

**2.- Ustiapeneko beste sarrera batzuk:** Udalak egingo duen ekarpen horretatik, 460.396,62 € Ustiapen kontua orekatzeko erabiliko dira, eta 516.941,55 euroak maileguz amortizazioa ordaintzeko erabiliko dira.

**3.- Negozio-zifraren zenbateko garbia:** Alokairuengatik aurreikusten diren 18.000 eurotako sarrerak, saldu barik dauden Etxebizitza Tasatuen alokairua da. (San Martin, 7).

**4.- Bestelako eraginak.** 2022 urtean 22 etxebizitza saldu dira, eta espero da 2023 urtean zehar 8 salmenta burutzea. Horien salmentarekin lotutako Caixaren zama hipotekarioa ordainduko da. Soberakinak egonez gero, Administrazio Kontseiluari dagokio horiekin zer egin, adibidez zama hipotekarioa gutxitzeko edo Bermeoko udalarekin kontabilitatean agertzen dan zorraren zati bat kitatzeko.



ERABILERA	KOPURUA
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	18.000,00 €
4.. Hornikuntzak	- 82.000,00 €
6.. Pertsonal-gastuak	-367.430,18 €
14. Finantza-gastuak	- 28.966,44 €
<b>FINANTZIAKETA BEHARRA</b>	<b>-460.396,62 €</b>
Maileguen Amortizazioa	- 56.544,93 €
<b>UDAL EKARPENA GUZTIRA</b>	<b>516.941,55 €</b>

### Gastuak:

10/2003 FORU ARAUAren 8. artikuluan xedatzen dan moduan:

*Aurrekontuko gastuen orrietan hauek agertu behar dira: a) Aurrekontu ekitaldiaren kargura aintzatetsi ahal diren gastuei aurre egiteko behar diren ordainketa kredituak. b) Hainbat aurrekontu ekitalditan luzatuko diren ekintzak finantzatzeko hartu behar diren betebeharrak juridiko-ekonomikoei aurre egiteko konpromiso-kredituak, ordain-keta kreditua zuzkituta dutenak, arau honetan ezarritakoaren arabera.*

**1.- Pertsonal-gastuak:** 2024 urteko langileen egitura mantentzen da eta horren kostua kalkulatzeko, 2023 kostua oinarri gisa erabili da, 2024 urterako Udalaren irizpideak jarraituz.

**2.- Finantza-gastuak:** Amortizazio eta interesak ordaintzeko aurreikusten diren kopuruak, BERUALAren banketxeekin aurreikusten duen zorraren arabera kalkulatu dira:

BANKETXEA	Urteko interesak
Kutxabank	2.981,33 €
Caixa	25.985,11 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>28.966,44 €</b>

**3.- Amortizazioa:**

BANKETXEA	Urteko Amortizazioa
Kutxabank	9.683,10 €
Caixa	46.861,83 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>56.544,93 €</b>



BERUALA, S.A. Bermeoko Urigintz Barriztatze Alkartea, Sociedad Anónima


**F.- 2024 EKITALDIRAKO Zorpetzeari buruzko eranskina (\*)**

**(\*) TAULA HONETAN EZ DA AURREIKUSTEN ALDEZ AURRETIK EGIN DAITEZKEN AMORTIZAZIOAK.**

	Poliza Zkia.	Noiztik	Noiz arte	Bermea	Kopurua	Disposizio-muga	Saldoa	Amortizazioa	Interesak	Disposizioa	Saldoa
							<b>31/12/2023</b>				<b>31/12/2024</b>
Bbk	85-09564877	15/05/2007	15/05/2039	Talakoetxea, 13	300.000,00 €	300.000,00 €	<b>166.715,97 €</b>	9.683,10 €	2.981,33 €	- €	<b>157.032,87 €</b>
Caixa	9620.310-743007-08 (*)	29/12/2009	29/06/2037	20.3-2 (38 VPO)	1,00 €	1,00 €	<b>0,75 €</b>	0,12 €	- €	- €	<b>0,63 €</b>
Caixa	9620.312-018986-43	05/09/2008	01/01/2033	San Martín 7-1B	166.252,14 €	70.227,14 €	<b>40.710,04 €</b>	3.728,44 €	1.716,64 €	- €	<b>36.981,60 €</b>
Caixa	9620.312-018987-56	05/09/2008	01/01/2033	San Martín 7-1C	139.257,82 €	58.824,90 €	<b>34.100,49 €</b>	3.123,08 €	1.437,94 €	- €	<b>30.977,41 €</b>
Caixa	9620.312-018990-76	05/09/2008	01/01/2033	San Martín 7-2B	167.832,05 €	70.894,54 €	<b>41.097,26 €</b>	3.763,86 €	1.732,98 €	- €	<b>37.333,40 €</b>
Caixa	9620.312-018994-28	05/09/2008	01/01/2033	San Martín 7-3B	167.832,05 €	70.894,54 €	<b>41.097,26 €</b>	3.763,86 €	1.732,98 €	- €	<b>37.333,40 €</b>
Caixa	9620.312-019001-46	05/09/2008	01/01/2033	Garaje San Martín 7	5.100,00 €	4.947,46 €	<b>2.867,83 €</b>	262,65 €	120,95 €	- €	<b>2.605,18 €</b>
Caixa	9620.312-019002-59	05/09/2008	01/01/2033	Garaje San Martín 7	5.100,00 €	4.947,46 €	<b>2.867,83 €</b>	262,65 €	120,95 €	- €	<b>2.605,18 €</b>
Caixa	9620.312-019004-85	05/09/2008	01/01/2033	Garaje San Martín 7	5.100,00 €	4.947,46 €	<b>2.867,83 €</b>	262,65 €	120,95 €	- €	<b>2.605,18 €</b>
Caixa	9620.312-019008-98	05/09/2008	01/01/2033	Garaje San Martín 7	5.100,00 €	4.947,46 €	<b>2.867,83 €</b>	262,65 €	120,95 €	- €	<b>2.605,18 €</b>
Caixa	9620.313-689608-43	12/11/2021	29/06/2037	San Martín 9 - BAJO	100.600,00 €	100.600,00 €	<b>87.755,01 €</b>	5.137,52 €	3.086,08 €	- €	<b>82.617,49 €</b>
Caixa	9620.313-689612-76	12/11/2021	29/06/2037	San Martín 9 - 1 D	106.400,00 €	106.400,00 €	- €	- €	- €	- €	- €
Caixa	9620.313-689614-02	12/11/2021	29/06/2037	San Martín 9 - 2 B	58.000,00 €	58.000,00 €	<b>50.596,45 €</b>	2.962,12 €	1.779,32 €	- €	<b>47.634,33 €</b>
Caixa	9620.313-689617-41	12/11/2021	29/06/2037	San Martín 9 - 3 A	107.869,39 €	107.869,39 €	<b>94.099,41 €</b>	5.509,01 €	3.309,19 €	- €	<b>88.590,40 €</b>
Caixa	9620.313-689622-87	12/11/2021	29/06/2037	San Martín 9 - 4 B	122.688,00 €	122.688,00 €	<b>107.026,69 €</b>	6.265,81 €	3.763,79 €	- €	<b>100.760,88 €</b>
Caixa	9620.313-689631-85	12/11/2021	29/06/2037	San Martín 11 - 2 A	104.300,00 €	104.300,00 €	<b>90.986,09 €</b>	5.326,67 €	3.199,69 €	- €	<b>85.659,42 €</b>
Caixa	9620.313-689634-24	12/11/2021	29/06/2037	San Martín 11 - 2 D	106.700,00 €	106.700,00 €	- €	- €	- €	- €	- €
Caixa	9620.313-689635-37	12/11/2021	29/06/2037	San Martín 11 - 3 A	61.000,00 €	61.000,00 €	<b>53.213,44 €</b>	3.115,37 €	1.871,35 €	- €	<b>50.098,07 €</b>
Caixa	9620.313-689636-50	12/11/2021	29/06/2037	San Martín 11 - 3 B	61.000,00 €	61.000,00 €	<b>53.213,44 €</b>	3.115,37 €	1.871,35 €	- €	<b>50.098,07 €</b>
					<b>1.790.132,45 €</b>	<b>1.419.189,35 €</b>	<b>872.083,62 €</b>	<b>56.544,93 €</b>	<b>28.966,44 €</b>	- €	<b>815.538,69 €</b>

## G.- LANGILEAK BILTZEN DITUEN ERANSKINA

### ORGANIGRAMA



### LAN POSTUEN ZERRENDA

Lanpostuen izena	Jarduraldia	Baldintza	Kontratu mota
Zuzendaria	Arrunta	Goi mailako tituluduna	Laborala
Letradua	Arrunta	Goi mailako tituluduna (Zuzenbidea)	Laborala
Arkitektoa	Arrunta	Goi mailako tituluduna (Arkitektura)	Laborala
Administraria	Arrunta	Batxilergo, L.H.2 Mailako titulua edo baliokidea	Laborala
Administrari-laguntzailea	Arrunta	Eskola Graduatua, L.H.1 M titulua edo baliokidea	Laborala